


noaua



"PREST DAGO INGURUA"


Igande honetan ospatuko da Andatza Eguna eta aurreko astean bazterrak txukuntzen aritu zen argazkiko kuadrilla / 7 or.

ARGAZKIA: ANDATZA EGUNEKO LAGUNAK



NOAUA

"Aitaren Gutuna" ikuskizunak ikusleen txalo zaparrada jaso zuen / 12




UDALA

Tren-geltokiko zubi berria aste honetan zabalduko dute / 14



LAB

Maiatzak 1: LABek eskualdeko manifestazioa iragarri du Hernanin / 16



USURBIL

Pagazpek maiatzaren 17an debutatuko du Herriarteko Pilota Txapelketan / 19



USURBIL
OPTIKA

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa

*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa

DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan

**PILARIK
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 3ra
TXOTX GARAIA
Aste Santuan ere irekita



Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



Usurbilgo Udala



KABIENE

Usurbilgo elkarlan gunea



**BETERRI
BURUNTZA**

HASIZ HAZI diru laguntza
ekintzaile eta autonomoentzat:

URTEBETEKO EGONALDIA
KABIENEN, DOAN



Eskaerak aurkezteko bi epe:

1.epea: Maiatzak 31 arte

2.epea: Irailak 30 arte

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Usurbilgo Udala 943 37 19 51 enplegu@usurbil.eus

Kabiene elkarlan gunea 943 55 96 75 kabiene@kabiene.com

Beterri-Buruntza autoenplegu zerbitzua 688 884 314 eta 747 441 745 ekintzaitza@beterriburuntza.eus

Bi urteotako pasabideari adio

Ezinbestean, herri barruko mugikortasuna hobetzeko egin beharreko lanek ekarri ziguten aldi baterako N634 errepidea zeharkatzeko pasabide berria, Etxealdiako zubia itxi ondoren. Herri erdigune inguruko paisaiatik desagertuko den elementua duzue albiste honi atxikitako irudia. 2024ko maiatzaren 27an ireki zuten, Etxealdiakoa eraitsi eta berria eraikitzeko. Orduetik,

lan guztiok amaitu artean, Zendoia ondoko eskaileatik, Txaramuntotik jaitsi eta igo behar izan da tren-geltokira iristeko. Azken orduko aldaketarik ez bada, aldizkari hau jasotzerako garai bateko ibilbidea osatu ahalko duzue bertara heltzeko, San Esteban kaletik, Etxealdia pareko zubi berri eta irisgarritik barrena. Adio, beraz, bi urteotako pasabideari.



Apirilaren 29tik 30erako gauean kentzekoak ziren behin behineko zubi hau.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Garbigune mugikorra Aginagatik Zubietara lekuz aldatuko du Udalak ostegun honetan, apirilaren 30ean. Bertan, astebetez izango dute, hilaren 7an Txokoaldera lekuz aldatu aurretik.

Bestalde, errefus bilketari dagokionez, maiatzaren 10ean egingo da hurrengo bilketa.

1952an jaiotakoen topaketa datorren astean izango da

Aurreko astean iragarri genuen moduan, 1952koak maiatzaren 9an dira batzekoak, eguerdiko 14:00etan Andatza tabernan (Egurtzegi egoitzako jantokian). Hori bai, izena aldeztu aurretik eman behar da. Hauxe da harremanetarako luzatu duten telefono zenbakia: 620 516 715 (Javier).

1960koak Atxegan batzeko deialdia egin dute

1960. urtean jaio zirenetako batzuk bazkari bat antolatu dute. Maiatzaren 23an elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea maiatzaren 10era artekoa izango da, telefono zenbaki hauen bidez:

- Mila: 670 906 417.
- Marije: 676 855 612.

"63an jaiotakoak bazkaria egingo dugu elkarrekin"

"63koa bazara eta etorri nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: (667296328, Jone) edo (690346480, Pili). Animate!"

- Noiz: Maiatzaren 16an, larunbata, eguerdiko 14:00etan.
- Non: Atxega jauregian.
- Izena emateko azken eguna apirilaren 24a zen berez.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (18)

Ponpaz hasitako bisita ponpaz amaitu zen. Hiru egunez egon zen markesaren gorpua Saroe jauregiko sala nagusian, eta usurbildarrek azken agurra eman zioten. Hala ere, gogoz kontra bat baino gehiago joan zen, askok imajinatu zezaketena baino gehiago. Zeren Troian egindakoak sumin ikaragarria eragin zuen, eta jada ez zen markesa ez zen babes hura. Berrero ere gaztetako munstroa esnatu zen, eta ez zuen erreparurik izan sugarretan usurbildarrak kiskaltzeko.

Troian hildakoen senideak etxean geratu ziren. Ez zioten errespeturik zor. Haien etxeetan bazen nahikoa sumin. Seme-alabak han geratu ziren betirako hauts bilakatuta. Katalinarengan ere ez zeukaten esperantzarik. Aitaren kalkoa zela uste zuten, silueta bat. Berdin-berdin jardungo zuen ziurrenik, eta herria bere nahieran ibiltzeko espazioa izango zen.

Inork ez zuen Helenaren arrastorik. Mapatik desagertu zela zirudien. Konspirazioen zaleek Katalinaren azpijokoren bat zela pentsatu zuten. Ahizpa txikia ekuaziotik kenduz gero, Saroeko lurrak berarentzat izango ziren inolako traba edota kontrakorik gabe. Besteren batzuek pentsatu izan zuten familiatik bereizteko nahian, norabait hanka egin zuela familiaren diruarekin. Esanak esan eta kontuak kontu, Helena desagertu egin

zen, eta urteen poderioz, jendearen oroimenetik ere desagertzen joan zen.

Izan ere, Katalinak inoiz ez zuen gustuko izan, eta egin zituen bidaietan, ahizpa txikiaren oroitzapena ahazten saiatu zen. Gutxitan azaldu zen Usurbila, eta azaldu zenetan, apenas zapaldu zuen kalea aitak ez bezala. Gerora, nahiago izan zuen ez itzuli. Eta jauregiko leihoak eta pertsiának itxita ikustera ohitu ziren usurbildarrak.

Ohitu ziren bai, hariak eta behin, Troiako gerra gertatu zenetik hamabost urtetara, gela bateko argia piztuta narbitu zuten Patrinetik. Azkar asko zabaldu zen zurrumurrua herrian gaua izan arren. Mamuei buruz hizketan hasi ziren bat baino gehiago. Morroiarekin hitz egin zuten jauregira hurbildu zirenek, baina marroiak gezurtatu egin zuen hori dena. "Ni hemen etxea zaintzeko nago, eta benetan esaten dizuet hona ez dela inor sartu" "Zin egin!" "Zin degizuet!". Buelta erdia eman zuten, baina susmoak ez ziren itzali. "Ardo goxoa behar diat dardara hau kentzeko".

Tabernako elkarrizketek hipotesi posible eta ez posible guztiak ukitu zituzten. Baita markesaren itzulerarena ere. Hilobitik altxa, eta forma etereoan usurbildarrak ikaratzera itzuli zela pentsatzeko gutxi behar zuten batzuek. "Hago ixilik! Nola itzuliko duk, ba, hilen artetik? Hura Mesias baldin bazuan, deabrua no-

lakoia izango duk?". Tabernariak etxera bidali zituen denak txorakerien kupo a bete zenean. Baina etxerako bidean, Inaxiok bost aldiz igurtzi zituen begi biak argia ikusi ala imajinatzen zuten ziurtatzeko. Goiko solairuko argi bat piztuta zegoen; halere, ardoari botazion errua, zeren nahiago mozkortzat hartzea erotzat baino.

Eszena guztia ikusi zuen morroiak lorategiko iluntasunean ezkatututa. Inaxiok berak etxerako bidea hartu zuenean, lasterka sartu zen jauregian. Eskailerak binaka igo zituen, eta goiko solairura iritsi zen arnasari buelta ezin eman. Atea jo zuen oraindik ere arnasestuka. Mantso-mantso zabaldu zuen atea, eta zabalitzen zen zirrikitutik sartu zuen burua. "Susmoak areagotzen ari dira. Honek ez du luzaroan iraungo, Helena" "Baina ezin dut argirik gabe egon!" "Zergatik ez zara nire etxolan geratzen? Agian arrazoi zenuen hori esan zenidanean".

Helena alabagazteena, zeren txikia esatea ez litzateke oso egokia, Saroe jauregira itzuli zen ezkutuan. Zertara itzuli zen, ordea, inork ez zekien.

**"TABERNARIAK
ETXERA BIDALI
ZITUEN DENAK
TXORAKERIEN
KUPOA BETE
ZENEAN"**

Maiatzaren 5eko 'Goazen Kalera', herri erdigunean

Usurbil herri zainzaileagoa izateko bidean, Udalak eragile gehiagorekin antolatuturiko astearteroko ibilaldi osasuntsuetan hurrengo, maiatzaren 5ean egingo da herri erdigunean barrena. 10:30ean abiatuko da ekimena frontoitik. Amaieran, OLH-ko ikasleek sukaldaturiko hamaiketako dastatu ahal-ko da. Herritar orok parte har dezake, aurrez izena eman beharrik izan gabe.

1946koak Larrun aldera doaz egunpasa

1946. urtean jaiotakoek egunpasa antolatu dute maiatzaren 25erako. Larrun eta inguruak bisitatuko dituzte. Interesa duenak, dei dezala telefono zenbaki hauetako batera:
687 706 363
677 342 793.

Errigorako produktuen banaketa

Negu amaieran, Errigoraren "Eskuz Esku" kanpainaren baitan, Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztutako produktuak eskatu zenituztenok adi; maiatzaren 7an (16:30-19:30) eta 8an (09:30-12:30) egingo dugu banaketa Udaregi ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan. Produktuon irabazien laurdena eremu haietako euskalgintzara bideratuko dute. Informazio gehiago, errigora.eus atarian.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK
· BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PATXI JATEXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Udal-langileen erabilerarako auto berria du udalak

Udalaren auto berria erabat elektrikoa da, eta udal-langileen laneko joan-etorrietarako izango da. Hornidura zutoina Kale Nagusian da eta "leku hori udalaren autoarentzat gordeko da".

2021ean herritarren zein udal-langileen erabilerarako martxan jarri zen auto partekatua bertan behera uzteak eragin nabarmena izan zuen udal-langileentzat. Alokairuan hartu zuen kotxe hura udalak, eta bi urteren ostean, alokairu kontratua asko garestitu nahi zuen hornitzaileak: horixe izan zen bertan behera uzteko arrazoiak. Autoaren beharra ez da desagertu, ordea, eta hainbat aukera aztertu eta ahalegin egin ostean, udal-langileen erabilerarako izango den autoa eskuratu du udalak, alokairuan.

EAEko Jasagarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 le-

gearen arabera, 2020tik aurrera administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailu guztiek ordezko erregaiak erabili beharko dituzte. Horrez gain, ordezko erregaiak erabiltzea sustatzeko betebeharra dute, ingurumen inpaktua arindu eta beren ibilgailu-flotaren petrolioarekiko mendekotasuna gutxitzeko. Auto berria, hain zuzen, erabat elektrikoa da, 2023 amaieran brigadaren beharretarako erosi zen furgonetaren antzera.

Horrekin batera, misioen araberrako gobernantza ereduaren barruan, udalak trantsizio ekosozialera birgira-



Aparkaleku hau soilik udalaren auto elektrikoarentzat izango da.

misioa ezarria du, eragileekin eta herritarrekin batera: 2030. urterako Usurbil klimatikoki neutroa izango den herria bihurtzea, balioen eraldaketan, mugikortasun eredu jasagarrian, baliabide naturalen zaintzan eta bertako kontsumo eredu arduratsuan oinarrituko den trantsizio justua garatuz.

Horrez gain, honako helburu hauek ere finkatuak ditu:

- 2030. urterako Usurbilen sortzen diren hiri hondakinak %10 gutxitzea.
- 2030. urterako energia kontsumoa %40 gutxitzea eta energia berriztagarrien kontsumoa %40 handitzea.

• 2030. urterako 10 minututan oinez edo bizikletaz mugitu daitekeen kotxerik ez erabiltzea.

• 2030. urterako autoaren erabileraren isurketak gutxitzea.

• 2030. urterako tokiko merkataritzan erosi daitekeenaren %60a herrian bertan erostea.

"AUTO BERRIAK TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO EZARRITAKO MISIOAREKIN BAT EGITEN DU"

Atsobakarreko partzela desafektatzeko erabakia jendaurrean

Udalak Atsobakarren duen partzela desafektatzea "eta ondorioz, ondare-ondasun bihurtzea" onartu zuen aho batez udalbatzak, martxoaren 26ko osoko bilkuran. Erabaki haren berri eman zuen apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldiz-

kari Ofizialak. Biharamunetik zenbatzen hasita, hilabetez jendaurrean izango da.

Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalek hitzarmena egin dute, Usurbilgo HAPOa indarrean sartzen denean partzela horren salerosketa gauzatzeko.

Bake epaile ordezkoren hautaketa martxan da

Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko udalbatzak onarturiko iragan iraileko deialdira hautagai bakarra aurkeztu zen; egun, bake epaile titularra dena. Ordezkoa hautatzeko bigarren deialdia onartu zuen udalbatzak mar-

txoaren 26an eginiko osoko bilkuran. Deialdia bera plaza-ratu zuen apirilaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak. Biharamunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epealdia dute interesdunek eskabideak aurkezteko.

'Xeibrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Joxe Antoniyo

Murgileneko Joxe Anton bidali dute Arrillagatzikira enkargu bat egitera. Hangoak aurpegiz ezagutzen ez eta horrela galdetu dio:

-Hi zein haiz? Ze izen dek?
-Nik Joxe Antoniyo diat izena; baina 'Xaxpilarru' esaten zidatek!

Heriotzak banandu arte

Asentxio, Orioko linternerikoa, osasunez larri dago, eta igeltsua baino txuriago dagoen bere andre Juana, berriz, oso penatuta.

-Juanak: Ai Asentxio, Asentxio, nahiago nuke ni hiltzea, zu ez baino.
-Asentxiok: Zuk ez dakit, baina nik behintzat bai.



Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo alkateak Europako Zero Zabor ziurtagiriarekin, Hernaniko udaletxean.

Usurbil, lau izarreko herria hondakinen kudeaketan

Hondakinak hobeto kudeatzeko eginiko urratsak aitortu dizkie Europako Zero Zabor Ziurtagiriari Usurbilgo, Hernaniko eta Astigarragako udalerriek. Usurbilek 2023ko ziurtagirian lortutako bostetik lau izarrei eutsi die, Hernani hiru izarretik lau izatera igaro da eta Astigarraga bitik hirura.

ARITZ LASARTE

"Zero Zabor Udalerrien Ziurtagiria Europako ziurtapen-estandar bat da: Zero Waste Europe erakundeak sortu zuen, eta MiZA Mission Zero Academy erakundeak jarri zuen martxan. Zero hondakinerako trantsizioa bizkortzea eta ekonomia zirkularra Europako herri eta hirietan ezartzea du helburu. Hirugarrenek egiten dute udalerrietako azterketa edo auditoria, eta bete beharreko eta baloragarri diren irizpideak aztertzen dituzte, behin betiko puntuazioak esleitzeko: gehieneko puntuazioa bost izarretakoa da", Udaletik azaldu dutenez.

Hiru urteko iraupena duten ziurtagiriok eskuratzeko deialdira aurkeztu ziren aipatu hiru udalerriak 2023an, lehen aldiz. Berrikustea egokitzen zen

aurten. "Hiruen kasuan, otsailan egin zituen azterketak Análisis Social y Medio Ambiente kooperatibak". Eguntan eman dituzte hiru udalerrietako alkateek hedabideen aurreko agerraldi bidez, alor honetan urteotan nahiz azken auditoretzen emaitzen berri.

"Oso balorazio ona"

Usurbilgo udalerriaren kasuan, duela hiru urte eskuratutako lau izarrei eutsi die herri honek. "Oso balorazio ona egin dute, gure herriko hondakinen kudeaketaren inguruan", nabarmendu zuen iragan astean Hernaniko udaletxean eginiko agerraldi bidez, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak. Bere esanetan, "hori ez da kasualitatez gertatzen. Bada Usurbilek eta usurbildarrek hondakinen

kudeaketarekiko eta ingurumenaren zaintzarekiko duten konpromisoaren erakusle". Oso garrantzitsutzat jo zuen "hiru herri hauek European kokatzea. Zero Zabor herriak gara, eta European kokatutako proiektu batean gaude. Oso garrantzitsua da gure hondakinen kudeaketa ezagutzea, aztertzea eta Europa mailako erakunde hauekin elkarlanean aritzea. Gaur egungo larrialdi klimatikoaren testuinguru honetan, gakoa da hondakinak ondo kudeatzea eta uste dut, hemen gauden herriak horren aitzindari izan garela eta aitzindari izaten jarraitzen dugula". Herriotatik egiten ari diren lana goraiatu zuen.

Jarduteko modu on gisa nabarmendu dituzte Usurbilen kasuan, "hondakinen kalitatearen kontrola eta ja-

rraipena egitea, sortzez besteko ordainketarekin ere jarraitzea, hondakinen trazarritateari ere jarraipena egitea, kontratazio publikoan ingurumen baldintzak txertatzea eta oso balorazio positiboa jaso du ere atez atekoaren bulegoak eta bulego horretatik egiten den lanak eta herritarrei eskaintzen diegun laguntzak, aholkularitza zerbitzuak". Herriaren urteotako hazkuntzak eragin ezkorrik ez duela izan hondakinen kudeaketan, zioen alkateak. Horren adibide argia da, %85eko gaikako bilketari eusten diola herri honek. Halere, zer hobetu jasotzen du egindako auditoretzak. "Batez ere, prebentzioan arreta jartzea eskatzen digu, egiten zaizkigun proposamenen artean; batetik, hondakinen prebentzio planak eguneratzea eta baita inpaktu adierazle batzuk garatzea ere". Usurbilgo alkatearen esanetan, "ekarpen horiek lagungarriak dira ere, aurrera begirako ildo eta lehenetsunetan eman beharreko urratsak finkatzerako orduan. Badakigu nondik jo".

Hondakinen kudeaketa hobetzen segitzeko asmo argia du Usurbilgo Udalak, "martxan jartzen ari garen gobernantza eredutik. Urteak daramatzagu misioen arabera gobernantza eredu bat eraiki nahian". Misio edo herri erronka horietako bat da trantsizio ekosozialarena. Erronka horren arabera, alkateak gogora ekarri moduan, "finkatua dugu 2030erako non egon nahiko genukeen, erronka honi dagokionean". Hondakinei dagokienean, %10 murrizteko erronka ezarria du udalerri honek.

HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAN "HIRU HERRIAK AITZINDARIAK GARA"



Andatza Eguneko Lagunak txukunketa lanetan aritu ziren aurreko igandean.

Zirimara eta Kilometroak, Andatza Egunean

Igande honetan ospatuko da Andatza Eguna. Goizean zehar, pintxoak edota sagardoa dartzeko aukera izango da, auzolanean ariko den herritar talde baten eskutik.

Kilometroak-en aldeko argazkia Badira zenbait urte, gainera, Zirimarak familia-plana antolatzen duela Andatza Egunaren harira. Aurten ere hala egingo dutela jakinarazi dute. Igande goizeko 9:30ean jarri dute bitzeko hitzordua San Estebango plazan, "denok batera Andatzara igotzeko". Antolatzaileek ohartarazi moduan, "deialdia irekia da, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte". Igoera horren amaieran, babesleku parean bertan, talde argazkia atera ohi dute urtero; oraingo hau, ordea, berezia izango da. Izan ere, Kilometroak ekimenari atxiki-

mendua adierazteko talde argazkia aterako da. Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdia 50 urte beteko ditu aurten. Lazkaon egin zuten lehen Kilometroak eta 50. edizioa ere bertan ospatuko dute urriko lehen igandean. Mende erdi horren harira, "50 urte, 50 tontor" ekimena antolatu da. Herri bakoitzeko mendi tontorretan talde argazkiak ateratzeko egitasmoa da. Usurbilgoa, igande honetako, maiatzaren 3ko Andatza Egunean aterako da. "Aterako dugun argazkian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu".

ZIRIMARAKOAK GOIZEKO 9:30EAN ABIATUKO DIRA SAN ESTEBANDIK

Sagardo Egunak badu datarik

Jakina denez, maiatzeko azken aurreko igandean izaten du Usurbilek sagardoa alkate nagusi. Aurtengoan ere hala izango da. Antolakuntzak jada guztion agendetan data

ondo baino hobeto gordetzeko deia egin du. 43. Sagardo Eguna maiatzaren 24an ospatuko dugu.

Datozen asteotan emango ditugu xehetasun gehiago.

Ikastaro eta kontzertu bana Aginagan

Bi ekimen iragarri ditu Aginagako Eliza Zaharra Kulturgunek asteotarako:

Maiatzaren 6tik aurrera, asteazkenero

17:00-18:00 Euskal dantza ikastaroa Eliza Zaharra Kulturgunean. Izena aurrez eman behar da Arrate Egoitzan edo Arrate Elkartean. Prezioa: hilerro, 15 euro.

Maiatzak 8, ostirala

19:00 Jurgi Ekiza Eliza Zaharra Kulturgunean. Argitzala ize-neko diskoa aurkeztera hur-

bilduko da Aginagara. "Bakar-bakarrik agertuko da oholtza gainean, alde batetik, kanta batzuk modu intimista eta gordin batean emanez, eta, bestetik, abesti batzuk modu apainduago batean proposatuz". Aginagatik jakinarazi dutenez, "aukera berezia izango da disko berria zuzenean gozatu eta bizitzeko, baita artistaren ibilbidearen hainbat proiektutako kanten moldaketa bereziak primizian entzuteko".

Sarrerak usurbilkultura.eus webgunean edo Arrate Ostatuan.

Bisita gidatuak, 650 Usurbil Biziren eskutik

Maiatzak 9, larunbata

• 11:00-12:45 Museo Irekia Ainara Azpiazu Aduriz 'Axi' -rekin. "Usurbilen kokatzen den artearekin eta kulturarekin duen harremana azaltzeaz gain, ibilbideko artelan garai-kide bat azalduko digu bere esperientzi eta ikuspuntutik".

Maiatzak 10, igandea

• 10:00-13:30 Usurbilgo sagardoaren kulturari lotutako bisita gidatua sagastietan barrera eta ondoren, Santueneako Aialde Berri sagardotegira bisita eta mokadutxo.

Maiatzak 16, larunbata

• 11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua, organo erakustaldiarekin (gazteleraz).

Maiatzak 27, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Maiatzak 29, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazio gehiagorako edo erreserbak egiteko:

650usurbilbizi.eus

Haur eskolarako matrikulazioa, maiatzaren 8ra arte

Zabalik izango da maiatzaren 8ra arte, 2026-27 ikasturterako haur eskolan matrikulatzeko epealdia. Udarregi ikastolan bideratu behar da, Gernika ibilbidea 11n. "Familiek izen ematea Usurbilgo Udalaren eskaera inprimakia betez egin ahal izango dute". Informazio gehiago, bideotatik jaso ahalko duzue: 943 36 12 16 telefono zenbakian edo haurreskola@udarregi.eus helbidean.

Deialdia, 2025ean eta 2026an jaiotako haurren gurasoei edo legezko tutoreei zuzendua dago.

Iñurri baten 'Poemario musikatua' Sutegin

Iñurri elkarteko kide Nahia Intxausti iñurriak argitaraturiko "Zainetatik Zilarra" poema bilduma argitaratu du eta saritua izan da. "Zuzenekora ekarriko dugu musikaz lagunduta", maiatzaren 10ean, 18:30etan Sutegiko auditorioan. "Beste iñurri batzuen laguntzaz, ordubeteko saioa eskainiko dugu", iragarri dute. "Animatu iñurritzera!".



Jon Sanz eta Jon Arroyo, hurrenez hurren, zaldilasterketak.eus-eko sortzaileetako bi. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Euskarazko bakarrak gara, ez dago beste ezer"

JON SANZ ETA JON ARROYO ZALDILASTERKETAK.EUS WEBGUNeko SORTZAILEAK

Zaldilasterketak.eus webguneko sortzaileak dira, Dabid Argindarrekin batera. Azaldu digutenez, "pandemia garaian hasi ginen proiektuarekin". Hiztegitxo bat ere osatu dute, "lexiko guztia gaztelaniazkoa delako".

Nola sortu zenuten zaldilasterketak.eus webgunea?

Jon Arroyo (J.A): Pandemia garaian hasi ginen proiektuarekin. Ez ginen gehiegi ezagutzen, baina kalean aurkitzen ginen. Ideia komentatu genion elkarrri eta pandemiako aisialdia horretarako baliatu genuen.

Zergatik sortu zenuten?

Jon Sanz (J.S): Udako denboraldian hipodromoan zaletuen gehiengoa euskalduna da, baina euskarazko informaziorik edo edukirik ez zegoen. Gure artean pentsatu genuen, ez zela posible zaletuen gehiengoa euskalduna izanik, ez egotea euskarazko informaziorik. Horregatik sortu genuen.

Lexiko guztia gaztelaniazkoa zela ikusten genuen, ingelesetik gaztelarara itzultzen zen, eta euskarazkoa ez zen eza-guna. Hiztegitxo txiki bat egin genuen, pixka bat hutsune hori betetzearren.

Euskaraz argitaraturiko bakarra da?

"HIPODROMOAN GEHIENGOA EUSKALDUNA DA, BAINA EZ ZEGOEN EUSKARAZKO INFORMAZIOARIK"

J.A.: Bai, ez dago beste ezer.

Nola izan zen euskarara itzultzea hiztegi hori?

J.S.: Euskaraz existitzen dira hitzak, baina batzuekin kontsulta asko egin behar izan nituen. Hipodromoan erabiltzen diren hitzak gaztelaniazkoak dira, baina egin genuen

"ASTEBURUAN HASIKO DIRA LASTERKETA GARRANTZITSUAK ETA ZAILA DA HORI JARRAITZEA"

hiztegitxoak ez du balorerik Euskaltzaindiarentzat. Egunerokoan gure artean erabiltzeko baliogarria da.

Elkarrizketak, albisteak, argazki galeriak... Erraza egiten zaizue hori guztia lortzea?

J.A.: Beno, bai. Zorionez, hirugarren sortzailea argazkilaria da, eta hipodromoan egiten du lan, argazkilarigisa. Bideoak ekoizten ere aritzen da, eta azken finean, horrek ematen dio ukitu berezi bat webguneari.

J.S.: Irudi aldetik oso potentea da. Lasterketen denboraldian, normalean, horien aurretik post luze bat egiten dugu. Bertan, egun horretako lasterketen berri ematen dugu, hau da, analisi moduko bat egiten dugu. Lasterketak amaitzean, kronika txiki bat egiten dugu horien inguruan. Xume samarra da, dugun denboraren araberakoa, gure aisialdian egiten baitugu.

Zaldi lasterketen denboraldian bakarrik egiten duzue jarraipen hori?

J.A.: Hasiera batean, nazioartekoa ere betetzen genuen pixka bat, bai twitterren bai berriekin, baina asteburu honetan hasiko dira lasterketa garrantzitsuak eta urrira arte zaila da hori jarraitzea.

J.S.: Sare sozialetan ere jarraitzen dugu egunerokotasuna, ez bakarrik hemengo hipodromokoa, baizik eta ingurukoena ere. Lehiaketatxo batzuk ere antolatzen ditugu Frantziako lasterketarik ospetsue- nean, Paueko neguko denboraldian, eta hogeitazale inguruk hartzen dute parte.

Nondik datorkizue zaldi lasterketekiko maitasun hori?

J.A.: Ni jaiotzez Lasartekoa naiz, eta beti joaten ginen hipodromora familiarekin. Osaba batek txikitzen asko irakatsi zidan.

J.S.: Ni ere antzeko. Lagun batekin eta haren aitarekin joaten nintzen.



Sarek deituta, hilaren 24an Mikel Laboa plazan eginiko elkarretaratzea.

Etixerako bidez eginiko hausnarketak partekatzerara doa Sare

Hilaren 24ko elkarretaratzean iragarri zuenez, eskualde mailako 27 batzar egin asmo ditu Euskal Herrian zehar. Horrez gain, agerraldi jendetsua dei-

tu du ekainaren 6an Arrasaten. "Jarrai dezagun konponbidearen, bakearen eta elkarbizitzaren logikan lanean", egin zuten gonbita Sarek.



Sutegi udal liburutegiak Liburuaren Egunean antolaturiko ekitaldiko irudia.

"Itzalen tektonika" Sutegin, Liburuaren Eguna ospatzeko

Apirilaren 23an izandako Liburuaren Nazioarteko Eguna ez zen oharkabean igaro Sutegi udal liburutegian. Udal zerbitzu horren eskutik, 2024an

argitaraturiko bere "Itzalen tektonika" poesia liburuan oinarrituriko emanaldia eskaini zuten Itxaro Bordak Ibon RG musikariarekin batera.



Zumarte Musika Eskolako ganbaran egin zuten belaunaldiarteko topaketa.

Belaunaldiarteko topaketa musikatua Zumarten

Urtero bitan egiten duten moduan, belaunaldiarteko topaketa ederra egin zuten apirilaren 23an Zumarte Musika Eskolako ganbaran. Eskolako

ikasleen eta Eguneko Zentroko nahiz eguneko arreta zerbitzuko erabiltzaileak elkartu zituen musikak eta kantuak giroturiko hitzorduak.



Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak apirilaren 26an antolaturiko bira.

Kantuz girotu dute herria, oraingoan igandean

Dantzan eta kantu giro bizian joan zitzaigun aurreko asteburua. Horren erakusle ondoko irudia. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak hileroko kan-

tu-jira antolatu zuen, oraingo honetan, ez larunbatean ohi den moduan, 14. Dantza Eguna ospatu biharamunean, hilaren 26an baizik.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitarakoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!
www.noaua.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Ta Puntu kooperatibakoekin batu ziren Usurbilen.



Aginagako herri kooperatibakoekin bildu ziren Eliza Zaharrean.

Kooperatiba sareak elkar ezagutzen

Danimarkako Kooperativt København sareko kideak bisitan izan ziren Usurbilen eta Aginagan, apirilaren 24an.

ARITZ LASARTE

Kooperatiba sareen elkartrukerean irudiak dituzue albiste honi atxikitakoak. Danimarkako Kooperativt København sareko kideak bisitan izan genituen apirilaren 24an Usurbilen eta Aginagan. Usurbilen Ta Puntu kooperatibako ki-

deekin bildu ziren. Herria ezagutzeko parada izan zuten. Izan ere, bisita gidatu bat egin zitzaion herri erdigunean barrera. Bazkalordurako Aginagara jo zuten. Arrate ostatu eraberrituan otordua egin eta bertako herri kooperatibakoekin elkartu ziren.

Euskal Herrian zehar egin-dako bisita astearen baitan etorri ziren udalerrri honetara haiek, bidelagun izandako Olatukoop sareko kideekin batera. "Olatukoop sarea Ekonomia Sozial Eraldatzailean (ESE) jarduten dugun kooperatibek, elkarteek, eta beste hainbat erakunde komunitariokosatzen dugu". Sare horren helburua, "Euskal Herriko sozioekonomia eta lurraldeak eraldatzea da, bizitza bizigarririk posible egiteko". Sare horretan dira hain zuzen, besteak beste, Usurbilgo Ta Puntu eta Aginagako herri kooperatiba. Antza, Olatukoop-ekoak

izan zituzten bisitan iragan udazkenean Danimarkan. Oraingoan, Kooperativt København sareko kideak dira Euskal Herrira etorri direnak. Laudion, Iruñean, Errearterian, Saran, Larresoron, Lazkaon, Lasarten... ere egon dira hainbat esperientzia kooperatibo ezagutzen.

"EUSKAL HERRIRA EGINDAKO BISITA ASTEAREN BAITAN ETORRI ZIREN GURE ARTERA"



Apirilaren 22an eginiko bisita gidatua, antolatzaileek ateratako irudian.

Atzerriko Lanbide Heziketako ikasleak gure artean

650 Usurbil Bizi egitasmoaren bisita gidatuetak baten parte hartu zuten Essenek (Alemania) eta Bursako (Turkia)

Lanbide Heziketako ikasleek. Usurbilgo hondakinen kudeaketa ezagutzen izan ziren apirilaren 22an.



Apirilaren 26an Aginagan hasitako bertso-ibilaldi gidatua.

Sagardoaren paisaian barrena tipi-tapa, bertsoan eta azalpenekin

Aginagatik Txokoaldera sagardoaren paisaian barrena bertso-ibilaldia antolatu zuen Alkartasunak apirilaren 26an.

Jakoba Errekondoren azalpenek eta Maialen Lujanbio zein Andoni Egañaren bertsoek girotu zuten ibilaldia.



Mitxelena eta TaPuntuko Alaitz eta Arkaitzek Beterri Saretuz sarea aurkeztu zieten Zubieta Lanbide Eskolako administrazio-kudeaketa, Web garapena, Automatizazio eta robotika, Energia berriztagarriak eta Mekanizatu zikloko ikasleei.

Zubieta Lanbide Eskolako ikasleek Beterri Saretuz gertutik ezagutzeko aukera izan dute

Mitxelena eta TaPuntu kooperatibetako Alaitz Tolosak eta Arkaitz Sukuntzak Beterri Saretuz eskualdeko eragileen elkarlaneko sarea aurkeztu diete Zubieta Lanbide Eskolako ziklo ezberdinetako ikasleei.

Apirilaren 21ean, Beterri Saretuz sarea Zubieta Lanbide Eskolara gerturatu zen, ziklo ezberdinetako ikasleei eskualdeko eragileen elkarlaneko sarea bertatik bertara ezagutarazteko. Saioa TaPuntu eta Mitxelena kooperatibetako Arkaitz eta Alaitzek gidatu zuten, sareko kide gisa, eta helburu nagusia izan zen gazteei tokiko errealitate ekonomiko eta sozial eraldatzailea gerturatzea Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala gaiaren barruan.

Beterri Saretuz-en aurkezpena
Saioaren lehen zatian, Beterri Saretuz zer den azaldu zen: eskualdeko enpresa, kooperatiba eta askotariko eragileek osatutako elkar-

lan-sarea, tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzailetik sustatzeko sortua.

Azaldu zen zer egiten duen sareak egunerokoa: kideen arteko harremanak eta sinergiak sustatu, proiektu bateratuak martxan jarri, lurraldeko beharrei erantzuten dieten ekimenak bultzatu eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea ardatz duten praktikak indartu.

Halaber, etorkizunari begirako helburuak partekatu ziren: lurraldean errotutako jarduera ekonomikoa sendotzea, lan duina eta kalitatezkoa sustatzea, eta elkarlanean oinarritutako garapen eredu indartzea, pertsonak eta komunitatea erdigunean jarriz.

Sarea: kolektiboan pentsatuz
Bigarren zatian, sarearen izaera kolektiboa azpimarratu zen. Beterri Saretuz osatzen duten eragileak aurkeztu ziren: sektore ezberdinetako enpresak eta kooperatibak (industria, zerbitzuak, hezkuntza, zaintza, teknologia, komunikazioa...), tamaina eta jarduera desberdinetakoak, baina balio partekatuetan oinarrituak.

Ikasleek ezagutu ahal izan zuten zein lan mota egiten diren sareko kideetan, zer profil profesional behar diren eta zein aukera sor daitezkeen etorkizunean bertan lan egiteko edo proiektu berriak sustatzeko. Lurraldean bertan jarduteak duen garrantzia azpimarratu zen, tokiko ekonomia eta komunitatea-

ren indartzean duen eragina nabarmenduz.

Ekonomia Sozial Eraldatzailea: praktika eta hezkuntza

Azkenik, Ekonomia Sozial Eraldatzailea zer den azaldu zen, modu ulergarri eta praktikoa: irabazi asmorik gabeko edo irabaziak berrinbertitzen dituzten egiturak, erabakiak modu demokratikoan hartzen dituzten erakundeak, eta jarduera ekonomikoa gizartearen zerbitzura jartzen duten proiektuak.

Kontzeptua ez zen soilik teorikoki azaldu; sareko kideen eguneroko praktikan nola gauzatzen den partekatu zen: gobernantza parte-hartzailea, lan-baldintza duinak, genero ikuspegia, ingurumenarekiko konpromisoa eta komunitatearekiko lotura estua.

Era berean, hezkuntzarako prestatutako gidak eta baliabide pedagogikoak aurkeztu ziren, ikastetxeetan Ekonomia Sozial Eraldatzailea lantzeko tresna gisa. Helburua da gazteek bestelako eredu ekonomikoak ezagutzea, ikuspegi kritikoa garatzea eta etorkizunean eragile aktibo izatea.

Saioa giro parte-hartzailean garatu zen, eta ikasleek galderak eta hausnarketak egiteko aukera izan zuten. Beterri Saretuz-etik balorazio oso positiboa egin dute esperientziaren inguruan, hezkuntza komunitatearekin elkarlana estrategikotzat jotzen baitute: "Gazteek gure lurraldeko errealitatea eta hemen eraikitzen ari garen alternatibak ezagutzea funtsezkoa da etorkizun kolektibo sendo bat eraikitzeko".

Ekimen hau Beterri Saretuz-ek lurraldean saretzea, ezagutza partekatzea eta belaunaldi berriekin zubiak eraikitzea helburu duten jardueren baitan kokatzen da, tokiko garapen eredu bidezkoago eta iraunkorrago baten alde.



"Aitaren Gutuna" herri ikuskizunean parte hartu zuen lantaldea.

Dantza giro bizia, Orbeldiren jaialdian

Apirilaren 25eko Dantza Egunak Orbeldiko kideak eta herritarrak bildu zituen hamalagarrenez.

ARITZ LASARTE

Dantza giro bizian joan zitzai-
gun apirilaren 25a, Orbeldik
antolaturiko jaialdiarekin. Goi-
zean, 7. Dantzari Txiki topake-
tak elkartu zituen Usurbilgo

dantzari belaunaldi gazteena,
Getariako Gure Txeru, Zarauz-
ko Jalgi eta Lezoko Murixka
taldekoekin. Lehenbizi, kaleji-
ra egin zuten herrian barrena
eta segidan, ekitaldia frontoian.

Erromeria giroa nagusitu zen
arratsaldean Artzabalgo plazan,
Harkaitz Allur eta Maddalen
Arzallusekin. Askotariko dantza
estiloekin gerri buelta mugitzen
aritu ziren geratu gabe.

Gauean, eskuzabalik jaso eta
txalo zaparrada moduan es-
kertu zuten Orbeldikoek hila-
beteotan ondutako "Aitaren
Gutuna" herri ikuskizunaren
plazaratzea. Hildako aita batek
hemezortzi urte betetako ala-
bari bizitzaz hausnartzuz ida-
tzita utzitako gutunaren ema-

naldia herritik herriarentzat
sortua izan da beste behin.

Esker ona adierazi zuen
emanaldi amaieran Orbeldi-
ko kide Aitor Agirrek. "Plazer
bat izan da, beste urte batez,
plaza beteta ikustea. Eskerrik
asko, istorioa sortzen lagun-
du dutenei, dantzari guztiei".
Falta zirenak oroitu zituen.
"Aurten ere, gure inguruko
pertsona batzuk ez ditugu
izan ondoan. Hemendik, txalo
zaparrada eskainiko diegu
errekuperatzen segitzeko, ea
hurrengo urtean gure ondoan
ditugun". Gonbita bikoitza
helarazi zuen, bukatzeko.
"Jarraitu herria egiten! Dantza
taldeko atek irekiak dituzue
edo zertarako".

**"JARRAITU HERRIA
EGITEN! DANTZA
TALDEKO ATEAK
IREKIAK DITUZUE
EDO ZERTARAKO"**

NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.eus

• Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali

Curriculum-arekin batera
bidaltzeko azken eguna: MAIATZAK 15

LEHENETSIKO DA:
- Begirale
edo zuzendari titulua izatea
- EGA izatea
- Usurbildarra izatea

noaua





7. Dantzari Txiki topaketen hasierako talde argazkia.



Erromeria giro bizia izan zuten Artzabalgo plazan.



"Aitaren Gutuna" herri ikuskizunaren plazaratzea, gogotik txalotu zuten.



14. Dantza Eguneko argazki gehiago noaia.eus atarian eskura ditzakezue.

650
USURBIL
bizi

Usurbil
Turismoa

noaia

LAN DEIALDIA - TURISMO GIDARIAK

**650 Usurbil bizirik turismo eredu proiektuaren bisita gidatuak egiteko
GIDARIEN lan-poltsa osatzeko deialdia.**

Noaia! K.E.ak ordukako kontratua eskaintzen du.

Asteburuetan ere disponibilitatea behar da. Bisitek urteko egutegia dute.

Betebeharrak:

- KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA IZATEA. Turismo, kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturalekiko interesa edo esperientzia kontuan hartuko da.
- EGA edo baliokidea izatea eta gaztelaraz aritzeko arazorik ez izatea.
- KANPOKO HIZKUNTZAK JAKITEA. Ingelera edota frantsesaren ezagutza beharko da.

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintzan esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialen kudeaketan ezagutza izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea.

**Interesatuak bidali curriculumak elkarte@noaia.eus helbidera
2026ko maiatzak 15 baino lehen.**

Tren-geltokiko zubi berria, amaituta

Tren-geltoki berria gero eta gertuago dago. Egunotan amaitu dituzte zubi berriko lanak eta asteazken honetan zabaltzekoa zen.

IMANOL UBEDA

Tren-geltoki berriari gero eta gutxiago falta zaio. Baina ez dago bukatuta. Nasetara sartzeko, geltoki zaharraren ondotik egin beharko da oraindik. Dena den, urrats esanguratsuak eman dira asteotan: zubi berria zabaltzeaz da, kaleko igogailuak zein eskailerak bezalaxe.

2024ko maiatzean itxi zen zubi zaharra, "hamar hilabeterako kontua izango zelakoan", udalak zehaztu duen moduan. Bi urte pasa behar izan dute zubi berria amaitu eta ireki arte. "Iaz jarri zuten zubi berria, baina ez dute irekitzerik izan, irisgarritasun baldintzak bete arte". Hori ziurtatu eta gero, "tren geltoki berriak bi modutara lotuko ditu goiko eta beheko zatia: eskailerekin eta igogailuekin".

Igogailuak lau izango dira. Bi geltoki barruan daude, nasetara sartzeko. Horiek aurrerago zabalduko dituzte. Kanpoko igogailuak dira aste honetan zabalduko dituztenak: Zumartegi industriagunearekin, Santuenearekin eta Atallurekin lotura egingo duten igogailuak.

Bi urteotan martxan izan den behin-behineko zubia apirilaren 29tik 30erako gauean kenduko dutela jakinarazi du udalak. "Kendutakoan, urbanizazio lanekin jarraituko du ETSk: zati hori falta zaie tren-geltokitik Atxega jauregirainoko eremu guztia berrituta uzteko. Era berean, pasealeku guztiko argiteria berritu dute".

San Esteban kalea, amaituta

San Esteban kalearen urbanizazio proiektua eta tren-gelto-



Zubi berria aste honetan zabalduko dute.


ki berriaren obra hasiera-hasieratik egon dira elkarri lotuta. Denbora honetan, kalea bi zatitan urbanizatu du udalak: "goiko zatia lehenengo, eta behekoa, ondoren. Izan ere, tren-geltokiko zubi berria zaharra baino altuago jarri dute, eta horrek zuzenean eragiten zion San Esteban kalearen beheko aldearen obrari: bi lanak uztartuta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea izan dute helburu ETSk eta udalak".

San Esteban kalea ordea, duela aste batzuk zabaldu zuten. Zenbait erremate kalea ireki

ondoren egin ditu udalak. "Horrez gain, aldapan dauden bankuak egokitu dira, erosoagoak izan daitezten".

"SAN ESTEBAN KALEKO LANAK DUELA ASTE BATZUK AMAITU ZITUZTEN. HAINBAT ERREIMATE EGIN DIRA EGUNOTAN"

USURBILGO UDALA



BEHIN BEHINEKO IBILBIDEA. Zubi berria eta kaleko igogailuak zein eskailerak zabaldu eta gero, oinezkoek eta bidaiariek ibilbide hauek jarraitu beharko dituzte.

Hondakinen gaikako bilketa %85ekoa izan zen 2025ean

Hondakinen sorreran gora egin da azken urtean Usurbilen, eta guztira 3.280 tona jaso ziren iaz. Herritar bakoitzak 506kg sortu zituen 2025ean, 2024an baino 22 kilo gehiago.

Usurbilgo udalak 2025eko hondakinen bilketaren datu guztien emaitzak argitaratu ditu. Iaz, guztira 3.280 tona hondakin jaso ziren Usurbilen, 2024an baino 166 tona gehiago. Oro har, gaikako kopuruek gora egin dute. Udalaren arabera, gaikako bilketa %84,7koa izan zen 2025ean, eta herritar bakoitzak 2024an baino 22 kilo hondakin gehiago sortu dituela azaldu du, pertsona bakoitzak 506 kilo sortu zituelako iaz. Ontzi arinen kasuan, 293 tona jaso ziren, 2024an baino zazpi tona gehiago. Biohondakinen kopuruak ere gora egin du 38 tona gehiago jaso baitira, guztira 860 tona. Industrian eta kale garbiketan ere gorakada izan da, eta bietan 15 tona gehiago jaso dira, 337 tona eta 69 tona, hurrenez hurren. Bildutako errefus kopurua 2024koaren oso antzekoa izan da, tona bat gehiago baita. Paperaren eta kartoiaren hondakinen bilketan, aldiz, beherakada izan da, 2024an baino 23 tona gutxiago jaso baitira, 445 tona

guztira. Txostenean ere, hondakinen bilketako balantze ekonomikoa argitaratu dute. Udalak hondakinen bilketaren eta kudeaketaren arteko finantza oreka lortu nahi du eta horregatik, zaborren tasa pixkanaka igotzen ari da gastuei eutsi ahal izateko. 2024an hasi zen tasa igotzen, defizita 0 eurokoa izan arte. Horregatik, tasa urtero %15 igoko zutela iragarri zuen 2024an, defizita Ora iritsi arte. Horretan ere aldaketak daude eta defizita geroz eta txikiagoa da. 2023an 307.000 euroko defizita zuen udalak, 2024an 248.000 eurokoa eta iaz, 219.000 eurokoa.

Hondakinen kalitatea

GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak Usurbilen bildutako hondakinen kalitatea neurtu du. Udalaren azken txostenean (2026ko martxokoa) errefusaren egokitasuna bildu zuen, eta %99,22ko egokitasuna izan zuen. Organikoaren inguruan bildutako datuak 2024ko maiatzekoak dira eta



Hondakinen gaikako bilketak gora egin du. Sortutako hondakin kopurua ere igo da.

hondakinen egokitasuna %98,65ekoa zen.

Usurbilek lau izar

Usurbilek lau izar lortu ditu Europako Zero Zabor Ziurtagirian. Hiru urterako eskuratu zituen Usurbilek lau izar horiek 2023an, eta otsailen egindako azterketen ondorioz, lau izar horiek mantentzea lortu du. Alkateak, Agurtzane Solaberrieta Mesak, lau izarrei eustea txalotu du: "Usurbilek eta usurbildarrek hondakinen kudeaketarekiko eta ingurumenaren zaintzaren erres-

petuarekiko duten konpromisoaren erakusle da". Udalak trantsizio ekosozialari begira helburu berri bat du: 2030erako herrian sortzen diren hondakinak %10 gutxitu nahi dituela azaldu du.

"HONDAKINEN KUDEAKETAREKIKO USURBILEK DUEN KONPROMISOAREN ERAKUSLE DA"

AGURTZANE SOLABERRIETA, ALKATEA

Urkamendi eta Iarbe arteko bidea konponduta

Iarbe eta Urkamendi arteko bideko konponketa lanak amaitu ditu Usurbilgo Udalak. Udalak Arri enpresa kontratatu zuen zeregin horretarako. 29.530 euro bideratu dituzte konponketa lan horietara. "Urkamendi eta Iarbe arteko bideko asfaltoa altxa, eta hormigoizko bide be-

rria" egin dute. Duela bi aste egindako lanak amaitu artean, aipatu moduan, bide hori itxita izan dute eta hala segiko du beste egun batzuetan, partzialki bada ere, Udalak ohartarazi duenez. Izan ere, "bidea itxita dago, orain, ibilgailu astunentzako, astebe-terako".



Aurreko asfaltoa altxa eta hormigoizko bide berria egin dute.



Udal langileak apirilaren 23ko lanuztearen baitan, udaletxe atarian eginiko bilkuran.

Bi orduko lanuztea egin zuten udal langileek

LAB eta ELA sindikatuek EAE-ko udaletan deitutako bi orduko lanuztearekin bat egin zuten baita Usurbilgo udal langileek.

Iragan ostegun goizeko 11:00etan hasi eta 13:00ak arte bi orduko lanuztea egin zuten udal langileek, "Udalhitzeko zein hortik kanpoko udaletako (hiriburua eta udal handiak gehienbat) negoziazioetan

udal langileek eskatzen ditugun aldarrikapenak mahaietara ekarri ditzaten". Udaletxe atarian mobilizatu ziren lehenik, "lan-baldintzak hemen erabaki. Udalhitzeko edukia orain!" aldarripean. Adieraz-

pena plazaratu eta manifestazioan joan ziren Mikel Laboa plazaraino. "Tokiko administrazioei, hauek gobernatzen dituzten alderdi politikoei zein EUDELi exijitzen diegu mahai-negoiaztailetara edukia orain ekartzeko, soldata eta enpleguari dagozkion gaiak hemen negoziatu behar direla aldarrikatzearekin batera". Izan ere, gogora ekarri zuten, "udal eremuan urte asko daramagu lan-baldintzak hobetuko dituen akordio integralik gabe eta mahai gehienak ez daude martxan". Ildo horretan, ez da hobekuntzarik izan azkenaldian. "Udalhitzeko nego-

ziazioan urte eta erdi pasa den arren, oraindik orain EUDELekei edukia eskasak jarri ditu mahai gainean eta orokorrean konkreziorik gabekoak dira. Udalhitzeko kanpo dauden udaletan berdina gertatzen ari da".

Bi greba egun

Egoera aldatzen ez den artean, "langileon aldarrikapenak mahai gainera ekarri bitartean, langileok argi daukagu abiatu dugun borrokarekin jarraitu behar dugula eta horregatik, maiatzaren 14an eta ekainaren 4an egun osoko grebak burutuko ditugu EAEko udaletxe guztietan". Mobilizazioeko parte hartzaileei eskerrak helaraztearekin batera, hurrengo deialdiei begira galdegin zuten, "jarraitu dezagun lanean eta landu ditzagun maiatzaren 14ko zein ekainaren 4ko greba egunak. Udalhitzeko zein udaletako negoziazioetan edukia orain eskuratze modu bakarra da! Beraz, presionatu ditzagun alderdi politikoa langileoi dagokiguna eskuratu arte!".

"ORAINDIK ORAIN, EUDELEK EDUKI ESKASAK JARRI DITU MAHAI GAINEAN"

LAB: "Maiatzaren 1ean kaleak hartuko ditugu"

LAB sindikatuak eskualde mailako manifestazioa antolatuko du maiatzaren 1erako. Eguerdiko 12:30ean abiatuko da, Hernaniko gudarien plazaetik.

"Euskal langileok, gerrari eta gerraren faktura ordaintzeari ezetz esango diogu, eta antolakuntza kolektiboaren zein borrokaren bitartez, Euskal Herrian beste eredu bat posible dela aldarrikatuko

dugu", prentsa-ohar bidez jakinarazi duenez. Buruntzaldean eta "Euskal Herriko gainerako eskualdetan, kaleak hartuko ditugu maiatzaren 1ean".

Aurten, LAB sindikatuak hiru aldarrikapen nagusi azpimarratuko ditu bere mobilizazioetan: "Etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak eta soldata zein pensio duinak".



LABek eskualde mailako manifestazio bat iragarri du maiatzaren 1erako.

Osasungintza publiko duin eske, eskualde honetarako

Donostialdea Osasun Publikoaren Alde plataformak elkarretaratzea egin zuen Donostia ospitalearen atarian.

Hiru egun lehenago Donostian eginiko manifestazioaren ondoren, elkarretaratzea egin zuen apirilaren 21ean Donostialdea Osasun Publikoaren Alde (DOPA) plataformak Donostia ospitalearen atarian, osasungintza publikoak eskualde honetan bizi duen egoera salatuz. Azken urteotan aplikatu diren murrizketen eragina agerian utzi zuten, zehazkiago esanda Etengabeko Arreta Guneetan dagoen mediku falta. Donostian halako hiru daude, "berizainen esku" eta mediku zerbitzua bazuen

hiri erdigunekoak, "txanden %17,2an mediku gabe egon zen, 2025eko ekainetik urrira". Tarte horretan, urtebete lehenago medikuak bazituzten hiru guneok. Ondorioz, "2025eko hilabete berdinetan, Donostia osoan txanden % 34,8 medikurik gabekoak izan direla esan dezakegu".

Eskualdeko gainerako Eten-gabeko Arreta Guneetan egoera ez da hobe DOPA-ren arabera, "medikuaren absentzien ehunekoa ere tamalgarria da: Iztieta % 57,5, Hernanin % 34,8 eta Zarautzen % 28,2".



Apirilaren 21ean Donostia ospitalearen atarian egindako mobilizazioa.

Datuok aintzakotzat hartuta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osoko, hau da, Osakidetza eremu osoko "estaldura medikorik txarrena" zuen 2024an. "Gardentasun eza" tarteko, ezin izan dituzte eskuratu iazko datuak, "baina ezerk ez du pentsarazten hobeak direnik".

Testuinguru horretan, eskualde mailako herri plataformak kezkatua agertu da. Eskualdeko Donostia ESiko

kudeatzailearekin ahalik eta lasterren biltzea eskatzea erregistratu dute, "egoera zuzendu dezala eskatzeko".

"ESTALDURA MEDIKO TXARRENA ZUEN DONOSTIALDEAK 2024AN"

"Ez gara Reala baina guk ere Zubietan jokatzeko dugu"

Lan-baldintza duinen alde Foru Aldundiaren egoitza atarian mobilizatu ziren bigarren erraustegiko langileak.

Bigarren asteartez segidan, apirilaren 21ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Donostiako egoitza atarian mobilizatu ziren Zubietako erraustegiko langileak, urte hasieratik abian duten mobilizazio zikloaren baitan, lan hitzarmen duina galdegiteko. Beste behin, "konponbidea eta babesa" galdegin zieten erraustegiaren kudeaketan ardura duten Ekobali, Ekondakini eta Foru Aldundiari berari. "Ekobal, Ekondakin, Aldundia, konponbidea eta babesa orain!" aldarripean bildu ziren langileok. Haien

osasuna bermatzea galdegin zuten, lan-baldintza duinak izatea. Benetako toxikotasuna ez dietela aitortzen salatu zuten.

Oraingo honetan, "ez gara Reala baina guk ere Zubietan jolasten dugu" pankarta eseki zuten Gipuzkoa plazan, Errege Kopa irabazi berritan haien lantoki ondoan entrenatzen duen talde txuri-urdinari aipamena eginez. Maiatzaren 1eko Langileen Eguneako LAB sindikatuaren Donostiako (12:00etan abiatuko da Easo plazatik) manifestazioan,



Erraustegiko langileak apirilaren 21ean Foru Aldundiaren egoitza atarian.

langileok bizi duten egoera ikusgarri egin asmo dute.

Egunotan enpresarekin egitekoak diren bileraren ostean erabakiko dute aurrera begira zer egin. Gogoan izan, "Gipuzkoako Kale Garbiketako Hitzarmenak jasotzen ez dituen erraustegiko langileen lan-baldintza bereziak eta zehatzak" arautzea eskatzen ari dira. Urtebeteko negoziazioen ostean, haien egoera ez da ho-

betu orain artean behintzat, "jasan behar ditugun lan-baldintza penagarriak aitortzeko borondate ezagatik".

"BESTE BEHIN, KONPONBIDEA ETA BABESA GALDEGIN ZIETEN KUDEATZAILEEI"



Usurbil Boleiboleko jubenil mailako nesken taldea. USURBIL BOLEIBOL

"Denboraldia ez da espero bezala joan, baina gogotsu gaude"

ARANE AGUIRRE USURBIL BOLEIBOLEKO ENTRENATZAILEA

Herriko kirol taldeen seriean ezin zuen Usurbil Boleibol taldeak hutsik egin. Arane Aguirre nesken jubenilen entrenatzailearekin hitz egin dugu denboraldiaren nondik norakoak jakiteko.

Nola joan da 2025-2026 denboraldia jubenil neskenentzat?

Denboraldia ez da espero bezala joan, baina gorabehera batzuk izan arren, gogotsu entrenatzen jarraitzen dugu emaitzak lortzeko.

Zeintzuk izan dira gorabehera horiek?

Talde berria da. Iazko kadete mailakoak eta jende berria nahastu egin dira. Batzuk oso denbora gutxi zeramaten jolasten, beste batzuk gehiago, eta talde bat osatu behar zuten jolasteko. Horrek asko lantzea dakar. Beste gorabehera bat entrenatzailearena izan da. Hasieran, Hans genuen, baina arazo familiarrengatik joan egin behar izan zuen, eta ni

geratu nintzen entrenatzaile gisa, eta beste berri bat etorri da laguntzera.

Bestetik, partidak jolasterako orduan, irabaztekoak ziren partidak ez ditugu irabazi. Baina alde horretatik ez da ezer gertatzen, partidak horietatik ikasi baitugu.

"DENBORALDIA EZ DA ESPERO BEZALA JOAN. GORABEHARA BATZUK IZAN ARREN, GOGOTSU ARITU GARA"

Zenbat denbora daramazue jolasten?

Denek ez dute denbora berbera egin boleibolean. Batzuk hiru urte daramatzate jokatzeko, beste batzuk lau, beste batzuk bi eta beste batzuk aurten hasi dira. Hori taldean nabaritu egiten da.

"TALDE GISA AURRERAPAUZO HANDIA EMAN DUGU DENBORALDI HONETAN. GURE JOKOA HOBETZEA LORTU DUGU"

Hala ere, entrenamenduetan erritmo bera eramaten saiatzen gara.

Eta klubean zenbat zarete?

Kirol taldea duela lau urte hasi zen. Hasieran oso nabaria zen jende oso-gutxi zegoela. Ni klubarekin jolasten hasi zen horietako bat izan nintzen. Hasi nintzenean orain dagoen jendea ikusiko banu, ez nuen sinetsiko. Alde horretatik nahiko pozik nago talde asko atara baitira. Aurretik Usurbilen ez zegoen kirol batez eta hain bogan ez den kirolaz gozatzen ikustea hainbeste jende, pozgarria da.

Zein helburu zenituzten urte hasieran?

Gure helburua lehen postuetan gelditzea zen arren, talde bezala hobetzea, ikastea eta kirol honetaz gozatzea zen.

Denboraldi hasieran finkatu zenituzten helburu horiek bete al dira?

Helburu horiek neurri batean bete dira, lehenengoan artean geratu ez bagara ere, talde gisa aurrerapauso handia eman dugu eta gure joko hobetu dugu.

Datorren urteari begira, zein erronka dituzue?

Hurrengo urtean lehenengoan artean gelditzea gustatuko litzaiguke.

Zenbat jokalariz zarete taldean?

Guztira hamalau jokalarik osatzen dugu taldea.

Usurbil Boleiboleko jubenil mailako nesken taldea

Entrenatzaileak: Hans Romero, Eligio Rodriguez eta Arane Aguirre.

Jokalariek: Ane Martinez, Naia Rodriguez, Noa Soroa, Arai Garcia de Eulate, Alaitz Alzas, Leire Mantecon, Ohiane Castro, Itxaso de Castro, Ekhiñe Almandoz, Maia Jambrina, Angie Artola, Lilien Li.



Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketan parte hartuko duten herrien argazkia.

Maiatzaren 17an hasiko du Usurbilek pilotako herriarteko txapelketa

Lehen kanporaketa Eibar eta Andoain herrien arteko kanporaketaren irabazlearen aurka jokatu du. Joaneko jaialdia etxetik kanpo izango da, maiatzaren 17an, eta itzulikoa Usurbilen maiatzaren 24an. Eskuzko txapelketaren finala ekainaren 28an izango da.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Usurbilek aurten ere Gipuzkoako Herriarteko txapelketan parte hartuko du. Pagazpeko pilotariek eskuzko txapelketan parte hartuko dute beste 23 herriekin batera. Herri horiek hurrengoak dira: Aduna, Aia, Albiztur, Alegia, Amasa-Billabona, Amezketa, Andoain, Antzuola, Aretxabaleta, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Eibar, Hernani, Lazkao, Oiartzun, Oña-

ti, Zaldibia, Zegama, Zestoa eta Zizurkil. Baina beste bi txapelketa ere badaude: larrazko paleta eta pala motza (10 herriek eman dute izena) eta gomazko paleta (18 herri).
Eskuzko pilotaren kanporaketak erabakita daude, eta Usurbilek maiatzaren 17an ekingo dio lehiaketari final zortzirenetan. Aurkaria Eibarren eta Andoainen arteko kanporaketako irabazlea izango da. Joaneko jaialdia Eibarren

edo Andoainen izango da, aipatu bezala maiatzaren 17an; itzulerakoa, berriz, maiatzaren 24an Usurbilen jokatu da. Kanporaketa gaudituz gero, final laurdenak maiatzaren 31n eta ekainaren 7an jolas-tuko lituzke. Usurbilgo Pagazpe Pilota Kirol Elkarteko kideek jolastuko dute Gipuzkoako Herriartekoa eta guztira, sei pilotarik hartuko dute parte. Hauek izango dira parte hartuko dutenak:

Kadeteak:

- Ekain Alejo.
- Markel Alejo.

Gazteak:

- Aimar Alejo.
- Enaitz Errasti.

Nagusiak:

- Xabi Santxo.
- Iñigo Ibargoien.

Sari bereziak

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak iragarri duenez, aurten sari bereziak egongo dira. Sariak esparatrapu hondakinekin egin dira. Iker Urmeneta pilotaria eta lanbide heziketako irakasleak eta Garrikoitz E.Muruak egin dituzte trofeo horiek.

Pilota klubetan eta eskoletan dauden esparatrapu hondakinekin kezkatuta zeuden, eta hondakin horiek guztiak biltzen hasi ziren. "Zailtasunik handiena esparatrapuari kola kentzea izan zen. Urarekin nahastuz, azkenean zuntza sortu dugu, moldagarri izan daitekeena", azaldu zuen Urmenetak Gipuzkoako Herriarteko txapelketaren aurkezpenean.

Saria euskarri bat besterik ez dela azaldu zuen E.Muruak, eta haren helburua pilota bati lekua emateko dela. "Balorea duena pilota bera da, horrek ematen dio bizia", esan zuen sortzaileak.

**"KOLA KENTZEA
IZAN ZEN ZAILENA.
AZKENEAN ZUNTZA
SORTU DUGU,
MOLDAGARRI IZAN
DAITEKEENA"**

IKER URMENETA, PILOTARIA

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxadun estaldurak · Estalkien berritzateak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

"Komunitatetik, heriotzaz" zikloaren segida

Heriotzaren gaia askotariko ertzetatik helduko duen zikloa antolatu dute Udalak eta hainbat eragilek.

Apirilaren 15ean eman zion hasiera Hil Arte Bizi egitas-moko sortzaile Nere Erkiagaren hitzaldiak. Heriotzari begirako prestaketa lanez, horiei begira falta zaigun eza-gutza eta ezagutza hau hedatzeko hainbat zertzelada eskaini zituen Sutegin.

"Komunitatetik, heriotzaz" zikloak maiatzean izango du segida beste bi saiorekin. Lehenengoan, hainbat herrikideek hartuko dute hitza.

Maiatzak 7, osteguna

• 18:00 "Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean: agur kolektiboak eta komunitatearen babesa" Sutegin.

• Bidegin elkarteko kide Izaskun Andonegik gidatuko du saioa. Gertuko heriotza traumatikoren bat gazte garaian bizi izandako hiru herritarren lekukotzak eskainiko dira. Halako ezbeharretan agur kolektiboak egiteak eta komunitateak ematen duen babesaren garrantziaz ere arituko dira.

Maiatzak 28, osteguna

• 18:00 "Zaintza paliatiboak: bizitzari azken arnasaraino laguntzen" hitzaldia Sutegi auditorioan. Hizlaria: Nerea Manterola (Zaintza aringarrietako psikologoa Matian).



Izaskun Andonegi Sutegin izango da maiatzaren 7an.

• Zehaztasunak: "Bizitzaren azkenetan hitz egiten da zaintza aringarriez edo paliatiboek: hil hurren den pertsonaren zein gertukoaren akonpainamendurako eskaintzen dira. Nerea Manterola zaintza aringarrietako psikologoa da Matian, La Caixa Fundazioaren gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonen arreta integrala emateko programaren barruan".

• Zuzeneko itzulpen zerbitzua (euskaratik gaztelaniara).

• Izen-ematea: doan, aurrez, usurbilkultura.eus web plataforman.

HERIOTZA GAZTETASUNEAN IZANGO DUTE HIZPIDE MAIATZAREN 7KO SOLASALDIAN

San Ixidro Eguneko bazkaritarako txartelak salgai

Hilaren 15ean ospatuko den jaiegunaren baitan, bertso-trikiti bazkaria antolatu dute Patri jatetxean. Txartelak salgai dituzue jada. Herrikideak lehian jarriko dituen giza proba izango du aurtengo jaiegunak.

Maiatzak 15, ostirala

• 10:00 Esna-deia herrian zehar Ostolaza eta Larrañagarekin.
• 11:30 Hamaiketako herrikoia plazan.
• 12:00 Bertsolariak: Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi.
• 12:30 Giza-proba binaka. Partehartzailak: Iurgi Mendiluze, Imanol Zaldua, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume.



Giza-proba 12:30ean hasiko da.

• 14:30 Bertso-trikiti bazkaria Patri jatetxean (bazkarirako txartelak salgai Patri eta Alkartasunan). Antolatzaila: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba. Laguntzaila: Usurbilgo Udala.

Maiatzaren 4an, odol-ematea Udarregi ikastolan

Bueltan da, Usurbilgo Odol-Emailen Elkarteak bi hilean behin egin ohi duen deialdia. Datorren astelehenan, maiatzaren 4an izango da hurrengo odol-ematea, ohi bezala, 16:30-20:10 artean Udarregi ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan.

Aurrez odola eman dutenei, hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

18-65 urte artean eduki behar dira odola emateko eta 50 kilotik gora pisatzea. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tartea igarotzen utzi beharra dago. Informazio gehiago donantesdesangre.eus web orrialdean eskura dezakezue.

Usurbilgo jaien inguruko bi ohartarazpen

Maiatzaren 19ra arte, uztailearen 1etik 5era ospatuko ditugun Usurbilgo festei begira, jai batzordeak eginiko deialdiotan parte har dezakezue:

• Txupinazorako hautagaiak: zuen hautagaitza proposatzeko aukera duzue telematikoki kultura@usurbil.eus helbidean edo presentzialki udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarritako ontzietan.

• Egitaraua diseinatzeko lehia-keta: norbanakoek zein taldeek aurkez ditzakete lanok. Aurten ehun euro gehiagokoa izango da saria, 600 eurokoa hain zuzen. Oinarriak bideo-tatik eskura ditzakezue: kultura@usurbil.eus 943 371 999 usurbilkultura.eus

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako:677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotako emango ditugu argitara.
- ▶ Gainontzeok, hurrengo asteko astekarian.

HILDAKOAK



Juan Mari Ezkurdia Murua

Apirilaren 22an hil zen, 67 urterekin.

Pilota Usurbilen

Apirilak 29, asteazkena. 19:00
Usurbilgo Nagusien
Txapelketa, aurre kanporaketak
Zazpi Iturri-Lagunak.

-Oiartzun-Zarautz.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

IGANDEA 03

USURBIL Andatza Eguna

Mendi irteera eta Zirimararen eskutik, familia plana. Goiz parteko jarduera.

ASTELEHENA 04

USURBIL Odol-ematea

Deitzailea: Usurbilgo Odol Emaileen Elkarte. 16:30-20:10 Udarregi ikastolan.

AGINAGA "Züek heben" erakusketa

2012tik hamasei herrietan barrena egindako proiektua. Lau sortzaile, hiru egun herri bakoitzean: argazkiak, soinuak eta hitzak bilduz. Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erretratu bat. Astelehenetik ostiralera, 17:30-19:30; larunbatean eta igandean, 11:00-13:00. Aginagako Eliza Zaharra Kulturgunean. **Maiatzak 4-10.**

ASTEARTEA 05

USURBIL Irakurketa saioa udal liburutegian

Mariasun Landaren 'Txan Fantasma' liburua aztergai. Euskal haur literaturan mugarri den liburu bat da. Irakurketa-solasaldia 9-10 urtetik gorako haur eta gazteentzat egokia. 18:00 Sutegi udal liburutegian.



Eguraldiak laguntzen duenetan, jende ugari elkartzen da Andatza inguruan.

Igande honetan, Andatza Eguna

Igande honetan, urte luzeetako ohitura berritzeko aukera izango da: Andatza Eguna.

Urtero legez, herri honetako mendi tontor kuttunera igo, hamaiketaxoa dastatu eta urte luzeetako ohitura berrituko dute hainbatek eta hainbatek. Aurtengoan ere, Zirimararen familia plana iragarri du. Ibilbidean zehar hainbat jolas egingo dituzte.

Beraz, Andatzara igotzeko gonbita bikoitza, hilaren 3rako iragarri dena.

Maiatzak 3, igandea

- 9:30 San Estebango plazatik hasita Zirimararen familia plana. "Familia giroan, Andatzako igoerari emango diogu, ibilbidean zehar zenbait jolas egingez. Behin gora igota ere jolas batzuk egingo ditugu".
- Goizean zehar, pintxoak eta sagardoa Andatzako bordan.
- 12:30 Argazkia Andatzako bordaren parean. Antolatzaileak: Ibai-Ondo elkarte eta Zirimara.
- Babesleak: Saizar, Udala.

Irakurketa-solasaldia udal liburutegian

Mariasun Landaren 'Txan Fantasma' liburua irakurgai izango dute maiatzaren 5ean asteartea, 18:00etatik aurrera, udal liburutegian. Irakurketa-solasaldia 9-10 urtetik gorako haur eta gazteentzat egokia. Liburuak jada eskuragarri daude liburutegian.

"Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean"

"Komunitatetik, heriotzak" zikloaren baitan, Izaskun Andonegik "Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean: agur kolektiboak eta komunitatearen babesa" solasaldia eskainiko du maiatzaren 7an Sutegin, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Jurgi Ekiza, maiatzaren 8an Eliza Zaharrea

Jurgi Ekiza Willis Drummond-eko kantariak taldearen etenaldi mugagabea aprobetxatu du bere bakarkako bigarren lana plazaratzeko: 'Argitzala'. Maiatzaren 8an ostirala, Aginagako Eliza Zaharrea arituko da. 19:00etan hasiko da kontzertua eta sarrearak usurbilkultura.eus web orrialdean eskura daitezke. Prezioa: 8 euro.

TXAPELDUN
ARDANGELA

PLATERAK
OGITAR TEKIOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna lurra 2, 943 49 88 83

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00-22:30 Osteguna eta igandea
8:00-23:30 Ostirala eta Larunbata

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

PELLO
ARRANDEGIA



LOKALA ETA NEGOZIOA
SALGAI JUBILAZIOAGATIK

650 313 191



Puntapax 7, USURBIL

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

DIRULAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRULAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRULAGUNTZA

ESKAERA AURKEZTEKO BI EPE:

1. epea: maiatzak 31 arte
2. epea: irailak 30 arte

Informazio gehiago

943 37 19 51 / 688 884 314 /
747 441 745

enplegu@usurbil.eus
ekintzailletza@betteriburuntza.eus

usurbil
zabalik **Z**

zabalik.usurbil.eus



OSASUN GIDA

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA OSASUN ZENTROA

Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoiak.
- Emakumearen fisioterapia.

943 53 92 66
623 46 26 58

Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

irati.ibargoien@gmail.com

@irati_ibargoien_fisioterapia

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

www.iratibargoien.com



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra
20160 Lasarte-Oria



- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Usurbilgo Hortz Klinika

Zure irribarrea,
gure lehentasuna



943 370 878 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205

MABIOK
FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB · T. 608 671 925 / 943 372 658
mabiokfisioterapia.com

mabiok_fisioterapia

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

publizitatea@noaua.eus